

LIBURU-IRUZKINA

AIZPURU MURUA, Mikel: *Udako Euskal Unibertsitatea euskal kulturgintzan. Hasierako urteak 1973-1984.* UEU, Bilbo, 2003

Jacinto Iturbe

Kimika Fisikoa Saila
Zientzia eta Teknologia Fakultatea
Euskal Herriko Unibertsitatea
qfpitbaj@lg.ehu.es

Liburu hau historia-liburu bat da, tituluak zedarrituriko erakundeari eta denbora-tarteari buruzkoa. Eta historia hori idazteko egilea bada nor: Historian doktorea eta Udako Euskal Unibertsitateko (UEU) kide eta zuzendari-ohia. Eta nire uste apalean ondo egin du. Zeren, liburu hau egiterakoan, hasierako urteetako lekuko esanguratsuenen oroitzapenak bildu baititu, eta, historialariek egin behar duten moduan, garaiko idatzizko materialak sakon arakatu baititu.

Idatzizko material hau begiratzekoan, agian, irakurleren bati harrigarri edo deigarri suertatuko zaio liburuko iturri askoan agertzen den aurreikuspena doktrinal politiko-militantea. Ez da ahaztu behar UEU denbora-tarte jakin batean

sortu eta hedatu zela, Euskal Herriko historian gontza izan zen denbora-tartean hain zuzen, arinak edo leunak ez ziren denboretan. Eta historialariak egoera hori islatu egin behar du, liburuan islatzen den moduan.

EKAIAko irakurlearentzat liburu honek ekarri dakartza interesgarri diren hainbat datu eta zehaztapen euskaraz egindako Zientziaren eta Teknologiaren historiaren gainean. Aipatzekoa da UEUko hasierako urte haiek izan zirela Zientziaz eta Teknologiaz (eta beste hainbat diziplina zientifiko ere) euskaraz sistematikoki eta zabalki idatzi ziren lehen denborak. Nagusiki, hein handi batean, urte haiek zaletuen urteak izan ziren. Ideia bat zabaldu zen: euskaldunak bere bizitzaren arlo

guztietan euskaraz aritu behar ziren; ondorioz, euskaldunek, izen hori merezi bazuten, ezin zuten Zientzia eta Teknologia beren mundutik kanpo utzi. Eta horrela, euskaldun batzuk hainbat ikastegitan erdaraz ikasitakoak beste euskaldun batzuei ahoz eta idatziz kontatzen zizkieten, hizkuntza (ahozkoa eta idatzia) bateratu baten oinarriak finkatuz.

Puntu hau garrantzitsua da zeren, hasierako urte haietan, Unibertsitatearen ideia eta goi-irakaskuntzaren ideia oso lotuta baitzeuden, ia sinonimo izateraino: beharrezkoa zen frogatzea euskara unibertsitate-irakaskuntzarako tresna-hizkuntza zela, aurretik edo aldi berean ikastolatan frogabidean zegoen moduan. Ideia honekin estekatuta, goi-irakaskuntzarako material idatziaren sorkuntza bultzatu zuen UEUK, nagusiki liburuak. Horrela urte haietan argitaratu ziren liburuen zerrenda UEUK oraintsu sortutako eta kudeatutako www.inguma.org helbidean aurki daitezke, eta lagin moduan 1978-1984 tartea hartuta, ia ziur liburu guztiak ez direla bildu, baina eskuragarri daudenei gainbegirada bat eginez ikus dezakegu ehun bat liburu argitaratu zirela, eta horietatik laurogei bat inguru zientzia eta teknologiaren alorrekoak direla, besteak ezagutzako beste arloetan sakabanatutako izenburuak izanik.

Zergatik desoreka nabari hori? Liburu honetan ikus daiteke erantzuna 1973.eko ekitaldiez dihardue-nean: «...zientzia-gaiekin lotutakoek (mintegiek) azaldu zuten heldutasun handiena ... Elhuyar elkarteak eta Leioako Zientzia Fakul-

tateako (*sic*) EKTk erakutsi zuten elkarlanerako gaitasunik handiena» (35. orr.).

Eta ideia hau behin eta berriro agertzen da liburuan zehar:

1974.eko ekitaldiez: «Zientzia Saila izan zen, denen esanetan, hobekien antolatu zuena bere ikastaroa, Bilboko, Donostiako eta Iparaldeko taldeak ...» (41. orr.).

1978.eko ekitaldiez: «Zientzia-arloak, ..., oso maila egokia erakutsi zuen» (119. orr.).

Urte horietan UEUn egindako lanak Unibertsitate ofizialera ekarriko zuen ondorioa: «...zientzia eta teknika izan ziren (euskara) Unibertsitatean sartu zutena» (102. orr.). Hori izan zen Euskal Herriko Unibertsitatean gaur egun dauden euskal lerroen hasiera. Alde horretatik, esan daiteke UEUK bere helburuetako bat bete duela, hau da, Unibertsitateak euskara baliatzea bere irakaskuntzako zereginetan.

Liburu honetan egiten denari jarraiki, aipatu beharrezkoa da UEU Zientziaren eta Teknologiaren arloan beste erakunde batzuekin aritu zela lankidetzan: Elhuyar, Jakin, UZEI,...

Baina liburuan ez dira bakarrik Zientziaren eta Teknologiaren arloan egindakoak aipatzen. Aitzitik, hauek atal txiki bat baizik ez dute betetzen, liburuan dagoen informazioaren barruan murgilduta. Liburuaren helburua ez da Zientziaren eta Teknologiaren historia egitea —hori, nik dakidanik, egiteko dago—. Berez, UEUK izan zuen kokapena azaldu nahi du egileak testuinguru soziopo-

litiko jakin bati lotuta. Era berean, agerian jarri nahi du Aizpuruk liburuaren izenburuan aipatzen dituen hamabi urte horietan UEUK izan duen bilakaera, gizartean jasandako aldaketa ugarien artean kokatua.

UEUren lana handia izan zen. Liburuaren egileak iragartzen duen irakasleen zerrenda osoak (35. orr., 49. oharra) argitaratzen direnean konturatuko gara parte hartu zuen jendearen kopuruaz eta kalitateaz.

Bukatzeko, liburu hau gustatuko zaio Euskal Herriaren historia gustuko duenari; gustatuko zaio gazte jendeari, orduko garaiak ezagutzeko. Izan ere hogeitaka urte baino gehiago igaro ez badira ere, askorentzat dinosauroen garaikoak diren pasadizoak izan daitezke hemen aipatzen direnak. Gustatuko zaie azkenean UEUren hasierako urteetan ibili zirenei, azken batean UEU parte hartzaile guztien artean egin den proiektua izan baita.